

# FUNTSEZKO ELKARTEAK



Gure enpresak bazkide estrategiko desberdinak izango ditu, haien ezagutza eta laguntza baliatuz gure zerbitzuak hobetzeko eta gizarte inklusiboago baterako ekarpena egiteko.

Enpresak izango duen bazkideak:

- **Elkarteak eta fundazioak:** Komunikazio behar konplexuak dituzten pertsonen, Pertsona Gorren edo/eta Pertsona Gorritsuen elkarteak eta fundazioak.
- **Hezkuntza eta osasun zentroak:** Eskoletako orientazio zerbitzuak, ospitaleak, zentro terapeutikoak...
- **Administrazio eta erakunde publikoak:** Udalak, foru aldundiak, gobernu autonomikoak...
- **Komunikazioarekin lotutako beste enpresak:**

Zer lortu nahi da?

- **Bezero ezberdinen informazio eta beharrak ezagutzea:** Bazkide hauek gure merkatu-segmentuen argazki fidagarria ematea. Horrela egokitzen eraginkorragoak sortu eta gure zerbitzua hobetu dezakegu.

- **Gure zerbitzu eta lanaren ezagutzak zabaltzea:** Elkarrekin, zentro, administrazio eta enpresa hauek gure lanaren eragile naturalak dira, haien bitartez ikusgarritasuna eta sinesgarritasuna irabazteko.
- **Baliabide ekonomikoak, finantzaketa eta proiektu publikoak/bateratuak:** Administrazioarekin eta elkarrekin egindako lankidetzek proiektu publiko eta sozialak sortzea ahalbidetzen dute. Horrek finantzaketa, diru-laguntzak eta epe luzeko egonkortasuna ekartzen ditu.

Gure bazkideekiko harremana elkarrekikotasunean oinarritzen da eta bi aldeentzat onuragarria izango den elkarlan trinkoa osatzea du helburu. KOBILANek eskaintzen dituen zerbitzuei esker, informazioa modu eraginkorragoan eta irisgarriagoan jasotzen da. Bestalde, gure bazkideei hazkunde seguruan oinarritutako proiektuetan parte hartzeko aukera eskaintzen diegu, inpaktu sozial handiko proiektu inklusiboetan parte hartuz. Horien bidez, beste erakunde batzuetara sartzeko ahalmena handitzen dugu, eta irisgarritasun-, berdintasun- eta inklusio-balioak indartzen ditugu.

Era berean, gure elkarlanerako harremanak leialtasunean eta etengabeko erabileran oinarritzen dira: bazkideek konfiantza dute gure zerbitzuen kalitatean, horren ondorioz, proiektu berriak sortzeko eta epe luzera egonkortasuna bermatzeko aukera dugu. Horrela, bi aldeentzako irudi positiboa ere sortzen da, irisgarritasuna eta gizarte inklusiboaren aldeko konpromisoa sustatuz.

## **BIBLIOGRAFIA:**

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M<sup>a</sup> E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako material.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Irudiak: <https://www.canva.com/templates>